

## **EUSKOTREN PARTICIPACIONES, S.A.**

### **Sozietatearen izena**

Euskotren Participaciones, S.A.

### **IFK**

A95292942

### **Izaera**

Sozietate publikoa.

### **Kontabilitate-araubidea**

Pribatua.

### **Aurrekontu-araubidea**

Partida murriztaileak dituen balioespena.

### **Sorrera**

Sozietatea 2003ko abenduaren 29an emandako eskritura publiko bidez eratu zen. Sorrera honako hau dela eta onartu zen: [312/2003 DEKRETUA, abenduaren 16koa, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, SA sozietate publikoari "Euskotren Participaciones, SA" sozietate publikoa sortzeko baimena emateko dena.](#)

### **Sail-atxikipena**

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

### **JESN**

6612 Bitartekotza-jarduerak baloreekin eta beste aktibo batzuekin egindako eragiketetan.

### **Helburu soziala**

2011ko ekainaren 28an, sozietatearen Batzar Nagusiak helburu soziala aldatzea onartu zuen, [59/2012 DEKRETUA, apirilaren 24koa, Euskotren Participaciones, S.A. pertsona bakarreko sozietate publikoaren Estatutu Sozialak aldatzea baimentzen duena](#) kontuan hartuta. Sozietatearen helburu diren jarduera hauek parte hartutakoen bidez gauzatu ahal izango dira zuzenean zein zeharka nazio-esparruan bezala nazioartean ere:

- a) Oro har garraioaren –salgaien zein bidaiarien garraioaren– eremuarekin zerikusia duten partaidetza sozialak eta balore higigarriak eskuratzea, edukitzea, gozatzea, administratzea, kudeatzea, lagatzea eta negoziatzea.
- b) Pertsonen zein salgaien burdinbidezko, tranbiazko edo errepidezko garraio-zerbitzuak eta ustiapena eskaintzea, barne direlarik material gurgildunaren mantentze-lanak eta beste zerbitzu edo jarduera osagarri edo garraio horiei lotutako jarduera batzuen ustiapenari edo eskaintzari lotutako gainerako elementu teknikoak.
- c) Burdinbidezko eta tranbiazko azpiegiturekin zerikusia duten proiektu teknikoetan, haien eraikuntzan, administrazioan, babesean eta zerbitzuetan parte hartzea eta/edo haiek gauzatzea.

### **Sailkapena kontabilitate nazionalean**

Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak

## **Kapital soziala**

60.102 €

## **Kapital sozialaren osaera**

Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A. (E.T. /FF.VV.): % 100

## **Administrazio Kontseilua**

Sozietatea Administrazio Kontseilu batek kudeatu, administratu eta ordezkatu du; kontseilu horrek kide anitzeko organo moduan jardungo du. Honako hauek dira 2013ko ekitaldiko urteko kontuak egiten dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Antonio Aiz Salazar jauna	presidentea.
Iñigo Palomino Zubiaurre jauna	
Manuel Leza Olaizola jauna	
Miren Izaskun Iriarte Irureta andrea	
Hernando Lacalle Edeso jauna	
Josu Sagastagoitia Monasterio jauna	
M. Almudena Ruiz de Angulo del Campo andrea	

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: % 100

## **2013ko aurrekontuak**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

## **2013ko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa**

[Ikuskaritza-txostena, 2013ko ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

## **2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak**

Aktiboa guztira	93.373 €
Ondare garbia	71.223 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	0 €
Batez besteko langile-kopurua	0

## **Sozietatearen helbidea**

Atxuri, 6 – 48006 Bilbo (Bizkaia)

## **Web gunea**

[www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)